


## Erabilgarri dago adimen artifizialarekin garatutako 'Modela' itzultzaile automatikoa

[berria.eus/albisteak/159868/erabilgarri\\_dago\\_adimen\\_artifizialarekin\\_garatutako\\_039modela039\\_itzultzaile\\_automatikoa.htm](https://berria.eus/albisteak/159868/erabilgarri_dago_adimen_artifizialarekin_garatutako_039modela039_itzultzaile_automatikoa.htm)

Gizartea

Euskara

Euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpen automatikoa egiteko tresna aurkeztu dute Elhuyarrek eta Mondragon Linguak. "Azkarra eta erabilerraza" dela adierazi dute, eta "kalitatezko" itzulpenak egiten dituela.



Karmele Uribesalgo Alzola

[Karmele Uribesalgo Alzola](#) -

2018ko azaroak 28

Euskararen morfologiak ezartzen zituen "mugak" gaindituta, Modela itzultzaile automatikoa aurkeztu dute Elhuyarrek eta MondragonLinguak, beste zenbait euskal enpresarekin garatu ostean. "Inoiz ikusi ez diren kalitateko itzulpenak eskaitzen ditu Modelak", adierazi dute tresnaren garatzaileek. Asmoa da euskara zabaltzea eta Euskal Herriko enpresen eleaniztasunean eragitea. Martxan dago jada [www.modela.eus](http://www.modela.eus) webgunean. Q

Sare Neuronaletako Itzulpen Automatikoa teknika erabili dute itzultzailea sortzeko. Beste hizkuntza batzuetan erabili izan da, eta euskarazko testuekin erabiltzeko modua aurkitu dute. Ane Ruiz de Zarate MondragonLinguako itzulpengintza zuzendariak adierazi du makina horrek ez dituela itzultzaile lanetan aritzen diren pertsonak ordezkatu. "Hala ere, aurrerapen teknologikoei ezin diegu mugarik jarri", erantsi du.

Itziar Cortes Elhuyarreko itzulpengintzarako teknologien arduradunak adierazi du "mugarria" izan daitekeela. "Momentuz web aplikazioa da, baina askoz ere gehiago eman dezakeela uste dugu". Besteak beste, telefono mugikorretako aplikazioetan erabiltzea gustatuko litzaiekela azpimarratu du, baita osasun arloan eta administrazioan ere.

Erabiltzaile bakoitzak hilean 2.000 hitz itzultzeko aukera izango du, dohainik. Muga hori gaindituz gero, izena eman daiteke, eta kuota bat ordainduta, zabaldu egingo da hitz muga.